



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

berria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



Patxi Uribarren

Euskararen
ikertzaile
eta
defendatzailea

Lege gordailua: BI-85-98

1999ko otsaila. 10. zkia. 125 pzta.

Sorgintxulo ☞ Krossa ☞ Patxi Uribarren ☞ Begoñako Baserriak ☞ eta abar...



Karmelo eleiza eta konbentua ditugu gerra aurreko argazki honetan. Barriketarako motiboa izan da hilabete honetan, argazkian ikusten dugun hego-hegala hainbat urtetan abandonuan egon ostean gazte talde batzuek okupatzea deliberatu zutenetik. Begoñako Karmeldarren konbentua lehengo mendearen amaieran egin zen, 1880 inguruan hain zuzen. Mende luze honetan zehar, gaur egun Santutxu auzoa denaren historian berebiziko pisua izan du. Gaur egun ezagutzen dugun Santutxu Bilboko auzo garrantzitsuenetakoa da. Lehengo mendearen amaieran, berriz, gaurko Santutxu Begoñako paraje batzuk besterik ez ziren, Landaberde, Markoartu, Santutxu, Basarrate, Azurleku... Baserriak eta konbentuak izan ziren nagusi bertan mende honen erdialdera arte, apenas fabrika edo bestelako eraikuntza barik. Handik hona, gerra ostean gehien bat, Bilboren hazkuntzak Santutxu jendez eta etxez bete zuen urte gutxian.

Baina, aldi berean, inguru urbano berrian, Santutxuk bere nortasuna hartu zuen, bertoko giroa eta bizitza. Honetan guztian, duda barik, Karmelo eleiza izan da ardatza. Haren inguruan eratu da auzoa, eta haren barruan, Karmelo kaleko hegalean gehien baten, auzoko hainbat mugimendu sozio-kultural hezurramitu ziren 50-60etan, Gaztedi dantza taldea, Ikastola, Gau eskola... Inondik ere, Karmelo orduko gazteriaren topagunea izan zen. Klaseak, taberna, ... benetakok kultur zentrua zela esan daiteke. Karmeldarrek baina, 70etan lehengo terreno batzuk saldu eta hegal berria eraiki zuten Landaburu baserria kalean, Karmelo kalekoa apurka-apurka abandonatuz. Harik eta 80en amaieran, eta Udalarekiko arazo batzuk gora-behera, Gaztediren lokala izan ezik, parte zaharra itxi zuten arte. Edozelan ere, Karmelo eleiza, gaur egun santutxutar askorentzat eleiza hutsa baino zerbait gehiago da, Santutxuren beraren sinboloa, duda barik.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta.:
berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:
Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte.

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi, Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Igor Zorrozuá, Iñaki Aurrekoetxea, Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

AURKIBIDEA



Eta gainera...
Atal berriak

Errezetak
Mendi ibilbideak
Ikus puntua



Begoñeraz Begoñan egoneko baserriak	8 orr.	Mahastberriak	17 orr.
Berton dugu Kulturgune berria okupatuta	12 orr.	Bertokoenak Dispersioa: zigor bat gehiago	21 orr.
Bakarka Patxi Uribarreni elkarrizketa	14 orr.	Bota ba! Sei Izar Kross-a inoiz baino jendetsuagoa	24 orr.
		Bideak Nabar Zarraga gazte antzerkilari fina	26 orr.

Aupa Mahatsorriok!

Eneeeee! Ikusi dozue? Etzunde ifini naurie. Hamen zeozer pasau de, ta enterau ein binaz, ze hau ez da Bertonen betiko legea. Rebisten baten bat ibili de dana hankaz gora ifinten. Iguel ixengo direz karnabalak, ta rebistie bera bere disfrazau eindde. Ta, zer disfraz da hau, ba? Rebista seridxoana? Lehendik bere bastante seridxoan zan, barrez! Bueno, neure moduko bateri bertan eskribiduten ixteko..., hain seridxoan bere ez da ixengo.

Edo, iguel ixengo da oingo hilen hainbet gauze pasau direzela, ta Bertonekoak bere atzien ez dauriela lotu gure ixen? Ze, Gabonatati hona batzueri loteridxe jausi, beste batzueri, aspaldian egin barik, eta eleixen sartutea okurridu.... Baie eskerrak oindiñokarren lotuten gazezela lehengo moduko batzuk, Aita Patxi edo neu lakoak, ze ezpabere... Dana dala iguel laster baten neu bere bidalduko naurie hameti, errezetak eta mendiko kamiñoak edo batetakizeostidxe ifinteko.

Firmaute: *Betikoak* (nor ixengo da ba?)

ikus ...puntu...

Iñaki Aurrekoetxea

Konpromisoaz



"XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" kanpainaren nire balorazinoa egin dagidan eskatu daustie

Bertonetik. Bai Bertonen konpromisoa hartu eta bete. Puntu honetan abiatzen dira nire burutazinoak.

Kanpainak gustu gazi-gozoa itzi daust. Helburu nagusia, teorian, euskararen normalizazioan garai berrirako herritarren eta eragile sozialen zein ekonomikoen konpromisoa lorzea zan. Beste bi helburu bebaegozan: Euskaren Gizarte Erakundearen Kontseilua gizartearen aurrean aurkeztea eta berau finantzatzeko iturria izatea kanpaina bera. Zer pasatu da? Azken biak ezin hobeto bete direla, besteak beste, irudian oinarritu dan kanpaina izan dalako. Kontseiluaren marketing-ak funtzionatu dau. Estadioak be bete genduzan, indar erakustaldi bihurtutako ekimen moderno eta hiperteknologoari eskerrak. Burutazino bat, zuri-baltzean: orain dala 20 urtekoa ez zan indar erakustaldi bat izan ala?

Kontua da goian aitaturako helburu nagusia, neurtzeko gatzagoa izateaz gain, ez ete dan barneratu bako mezuan geratu. Badakigu XXI. mendeko akordioa idazteko dagoela, baina zelango konpromisoak hartu dira/doguz bien bitartean? Zer egiteko prest dagoz gure herrian hain garrantzitsuak diran eragile sozio-ekonomikoak. Egun honeetan jakin dot akordioaren aldeko sinatzaeileen artean dagoan enpresa-talde bateko goi-kargu batek herri euskaldun bateko euren langile euskaldun bateri lan-kontratuaren ganeko agiria bialdu dautsola, zelan eta español hutsez. Ulertzen al da nire kezka?

Geurera etorrita, gozoak gaziak baino ageriagoak dira. Kanpaina aurrera eroateko sortu zen batzordeak bere bidea egiten jarraitzeo asmoa dauka. Gure auzoetan euskalgintzaren eragile direnen artean protagonista barriak sortu dira eta elkarlanaren beharraz jabetu. Gure akordioa sinatzeko ordua da. Helburuak eta lehen-tasunak adostu et euskararentzat gune barriak sortzeko zein irabazteko aukera ezin hobea daukagul Abenduaren 26an hartutako konpromisoa betetzen hasi gaitezkan, gure buruagandik hasi eta inguruak ziprztinduz, bertsrik ez bada be, 20 urte barruko burutazinoari titulua aldatzeko.



gazi-gozoak

Matrikulazio kanpaina betean dabilta eskola guztiak. Baita geurean ere, eta euskarazko ereduak etengabe doaz gorantz, baina, hala ere, asko dira oraindino eskolako urteak amaitu eta euskaraz jakingo ez duten umeak eta gaztetxoak. Izan ere, bistan dago eskola eredu batzuek ez dutela bi hizkuntza ofizialak menperatzerik lortu, eta hori euskararen kaltean beti. Ea hemendik aurrerako belaunaldi guztiak irteten diren eskolatik Berton-en moduko aldizkari bat irakutzeko moduan.



Bai, baietz esan zioten asko eta askok euskarari. San Mames, Agilera, Sadar, Anoeta eta Mendizorrotzak gainez egin zuten abenduaren 26an. Eta horrezaz gainera, hainbat eta hainbat eragile sozialek ere euskararen normalizaziorako akordioaren alde.

Baina, guk kanpaina honetan lanean jardun duten guztiekin akordatu gura dugu, auzo-herrietako batzordeetan gogoz batu diren lagun guztiekin. Eta bereziki, euskararen normalizazioan dauzkagun egiteko guztiak euren gain hartzeko prest dauden guztiekin. Orain da sasoa 26ko baieztokoari eusteko, animo eta aurrera!



errezetak

PIPER BETE HOTZAK EDO TORPEENTZAKO ENTSALADA ERRAZA

Osagaiak:

- Pikilo piper pote bat (500 gr.).
- Kipulatxoa edo kipula (hori zure aukeran dago).
- Hegaluzea oliotan (lata bat).
- Oliba beltzak (10 edo).
- Pepinilo txiki bat (ozpine tan dauden horietakoak).
- Arrautza egosi bat.
- Maionesa.
- Uhaza.
- Eta ozpin-olioa egiteko olio goilarakada bat eta ziape (mostaza) apur bat.

Ganora gabeko okupa gehiegi ikusi ditut Santutxun eskuratu berri dugun lokal santu horretan. Egundia osoa pasatzen dute han baina, eta hau da lotsagarriena, amek etxetik janaria ekarri behar diete etxetik. Hona hemen hori ekiditzeko oso modu erraza.

Pikilo piperrak hartu behar dituzu (hau da, lata zabaldu, trakets hori!), pipitak kendu eta ondo garbitu, (baina uretan ez, eskuekin). Piper barruan joango dena egiteko, lehenengo eskuak garbitu (hasi baino lehen egin behar izan duzu baina, ez badago erremediorik egin orain). Ondoren bol, plater edo ontzi baten honako hau sartu:

Kipulatxoa edo kipula, txiki-txiki eginda, eta gauza bera egin behar duzu hegaluzea (atuna, zimarro), oliba beltzak (hezurrak kendu ostean) eta pepiniloarekin. Ez ahaztu arrautza egosia (baina osoa ez astopotroa, oso xehe eginda, ¡Que cruz!).

Orain (Hau gozamina!), eta behin maionesa gehitu ondoren aurreko nahasketari, eskuekin ondo baino hobeto eragin (Plazer erotiko bakartia, baina lagunduta egin daiteke). Piperrak bete kontu handiz ez apurtzeko, eta zerbitu baino lehen; olio eta ziape apur batez egindako ozpin-olioa piper gaintetik zabaldu.

Dotore itxura eman diezaiozun errezetari ondo legoke uhaza txiki-txiki eginda jartzea gaintetik.


Badakit oso erraza ematen duena baina, ondo eta dotore egin hau, eta hurregoan zailago egingo dugu.

Sutan frogatzen baita eltzea.

Aitortilla

Zatoz haize gorria
gure herrialdera
eguzkia paisaiaren
ortzemugara eramatera
zatoz hostoak lehertzera
gorostiak handitu eta lehertzera
intzirika
zatoz haize zoroa
guardasolak okertze
teilak mogitzera arranoa bezala
hegalak zabal zabalik
ez zaitetz ederra izan
ez abila izan zaitetz dorpea
zatoz erauz itzazu
jaun andereen maskarak
galeraz itzazu hegaberak zeruetan
zatoz errime
munduko gauzek beren moldea
zein den ahantz dezaten
sosegu zuri guziak lohitzera
erdu indarrez
zuhaitz zaharren adarrek
eroturik
gure etxeetako ateak
hauts ditzaten.

Joseba Sarrionaindia
HAIZE GORRIA
(Hnuy illa nyha majah yahoo)



Aurreko ale baten egin genduan moduan, oraingoan be Begoña inguruko baserrien kontu honegaz gatortzuez eta oraingoan be ezin geinke ahaztu lagundu deuskuzuen guztieri 2. baserri multzo hau atara ahal izateko, eta zelan ez aipatu beren beregi Joseba Bastera eta Santutxuko Mintza Taldea, eurek argitaratu daben Begoñako baserrien gainezko liburu ederrari esker, osotu ahal izan dogu artikulu hau.

⇒ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

BEGOÑAN EGONEKO BASERRIAK (II)

Hurrengo zenbakietan be baserriekaz segiduteko asmoa daukogu, eta zuri irakurle zintzoa zaran horreri, eskatzen deutsugu laguntza, eta Begoñako baserrien argazki zaharrak etxean badekozuz edota honeen historia ezagutzen badozu, anima zaitetz eta mesedez deitu edota geugaz kontaktoan ipini, ea ba argitaratuteko modua daukagun.

BIRJINETXE BASERRIA

Bigarren karlistadan hartu eban izen hau baserriak Begoñako Amabirjina bertan euki ebenlako gaube batean. Gardokitarrak bizi zirean Birjinetxen. Geroago Mungitik etorritako Mardaras familia bizi izan zan bertan.



Birjinetxe baserria

LARRATUNDU AUZO

Larratundu izeneko auzoan, bost bat baserri egozen. Larratunduburu edo Zizerune, Zize-

runtxiker, autobidea dala eta bota barriak, Larratundu Goikoa, hau be urte gitxi dala bota zeuren, Larratundu Erdikoa eta Larratundu behekoa edo Txotene. Azken hau zutunik dago oraindino.

Zizerune edo Larratunduburu



ZIZERUNE EDO LARRATUNDUBURU.

Baltziskueta familia bizi zan bertan eta euren artean, Julio eta Mari. 1920ko hamarkadan Gatikatik etorritako Urrutikoetxea familia eta Pantxike, Valen eta Vicenta be bizi izan dira bertan. Fruta asko batuten zan etxalde honetan eta txakolina be egiten zan.

LARRATUNDU

Zaratetarrak bizi izan zirean

baserri honetan eta euren artean Canuto, Máximo eta Gabriel "Gosolo".

LARRATUNDU ERDIKOA

Zarate familiakoak bizi izan zirean eta euren artean Felipe "Txikito", Canutoren anaia. Bertan bizi izan zan Zirilo Petralanda, "Zesterue". Ospe handikoa berau otzarak eta egiten ebazanlako.

Juanito eta Santa be bizi ziran baserri honetan.

ZIZERUNTXIKER EDO ZAMALLOA

Zamalloa familia bizi zan bertan eta euren artean, Julian eta Francisca Dobaran eta honeen semealabak Juanita, Meliton eta Juli.

LANDAREN BASERRIA

Sindikato ondoan egoan. Landa bizi izan zan bertan.

GARAI BASERRIA

Garaizar baserriaren aurrean egoan.

ALDAPEREN BASERRIA

Gaur egun Gabriel Aresti kalean dagoan tokian egoan, anbulategi aurrean hain zuzen ere. Aldape bizi izan zan bertan.



Zizeruntxiker



Madariaga Txakolindegia

MADARIAGA TXAKOLINDEGIA

"Maipu"-ren ondoan egoan. Etxebarriarrak bizi zirean bertan eta euren artean, Ambrosio Etxebarria. Bertoko txakolina ezaguna izan zan.

Madariaga eta Maipu inguruan beste baserri honeik ere egozen

ETXANIZ BASERRIA (gaur ezetuten dogun parkearen barruan)

ENRIKE GARRASTATXUREN BASERRIA (KASKORRO)

JOSE EL CARBONEROREN BASERRIA

Matalobos auzoan egoan, gaur egungo Txurdinagako anbulategiaren ondoan.

ARTALANDIO BASERRIA

Gaur egungo Txurdinagako parkearen erdialdean zegoen.



Artalondo baserria

ARTETXE BASERRIA


Gaur egun FP-ko institutua dagoan tokian egoan, palmera dagoan lekuan bertan. Artetxe, Basterretxea eta Etxebarria familiakok bizi izan zirean bertan. Zenobia-Melchor-Patxo-Valentín-Pedro-Cañero. Bere txakolinak fama handia emon eutson baserriari.

Artetxe



TXABOLA EDO ETXEBARRIARREN BASERRIA

Argazkian ikusten den moduan, Colegio Alemán eta Garaizar etxaldearen ondoan egoen



Euskeria: abestiaren bidez borrokan

Duela mende batetik gora sortutako Euskeria Orfeoiaren ikuspegi nazionalista omentzarren hartu zuten izen bera

Mahatserrian bada izen handia lortu eta alde batetik bestera kantari ibiltzen den euskal abesbatza bat: Euskeria. Baina noiz sortu zen abesbatza? Sortu zenetik aritu da euskal kulturaren alde kantari? Uste baino historia luze eta aberatsagoa du bere sustraiak duela mende bat baino gehiago bota zituen Euskeria abesbatzak.

Orain 102 urte, 1896.ean, Euskeria Abesbatza izeneko orfeoa sortu zen Bilbon. Transizio politikoaren garaian, ordu-ra arte Euskal Nazionalismoaren aldeko izan ziren hainbat sektorek, Madrildik ezarritako aldaketak onartu zituzten, beraien erreibindikazioak alde batera utziz. Euskal Herriaren burujabetzaren alde borrokatzen zuten beste zenbaitek aldiz, euskal identitatearen alde borrokan jarraitu zuten.

Egoera horren aurrean, lehenagotik nortasun nazionalaren alde ibili zen San Anton Orfeoa berriz ere elkartu egin zen, abestiaren bidez Euskal Herri aske baten alde borrokan zebiltzanei bultzada eman nahian. Beraien ekitaldiak gai zehatzetara zuzentzen ziren:



Olentzero edo Santa Ageda bezalako egunetan presoan alde eginaz, omenaldietan parte hartuz, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Ibiladia eta abarretan parte hartuz euskararen alde eginaz... Helburu horiek oinarritzat hartuz talde finko bat sortzea erabaki zuten; Euskal Herriak bizi dituen arazoekiko lotura izango zuen abesbatza egonkor bat.

1896. urtean sorturiko Euskeria abesbatzak zuen izaera nazionalista dela eta, 1978an sortu zen abesbatza berriak izen bera hartzea erabaki zuen. Lehen orfeoa 1917. urtean desagertu zen Madrildik Gobernuak debekatu egin baitzuen.

Gaur egun izaera berdinarekin jarraitzen du Mahatserriko abesbatzak, zenbaitetan abesti zaharrei letra erreibindikatioak egokituz. Era berean, izaera herrikoia duten aste kulturaletan parte hartzen dute. Estitxu Arregiren zuzendaritzapean kantari aritzen diren 40 gizon-emakumeen helburuak gaur egun ere, kalitatezko interpretazioak eginaz taldekideek amesten duten Euskal Herriaren eraikuntzaren aldeko borroka egitea da, ondoen egiten dutenaren bidez; abestuz.


I N K E S T A

Zer deritzozu Karmeloko okupazioari?



Ainhoa
Santutxu

"Ondo dago Santutxun kulturgune bat edukitzea tailerrak egiteko. Oso ausartak izan dira benetan."



Jon Ander
Txurdinaga

"Ondo iruditzen zait okupatzea baina oraindik ez dut ikusi."



Izaskun
Santutxu

"Harrigarria iruditzen zait hain arrunta den gaztetxe bat horrela lortu behar izatea."



Itziar
Txurdinaga

"Ondo dago lokal hori gauzak egiteko."



Maribel
Txurdinaga

"Ondo deritzot, hutsik zegoen eta orain erabilgarriagoa da."



Alicia
Txurdinaga

"Ondo iruditzen zait gazteak zentro zibikoak edukitzea baina ondo antolatuta, zentro zibiko bat baino gehiago."



Iker
Txurdinaga

"Agian auzoko gazteontzat interesgarria izan daiteke."



PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!

ANGEL
HARATEGIA - URDAATEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

MASET TERAPIUTIKOA
L.A. CAMACHO
411 32 20

A T U G U R A

E R B E T A N

Kulturgune berria okupatuta

Sorgintxulo izeneko kultur elkartearen lanean



asetzen, ez du inolako irtenbiderik aurkeztzen eta 'partxe' bat besterik ez da".

Momentuz, jendea dago Sorgintxuloko lokaletan lotan geratzen dena, horretarako gela bi daude egokituta jende horrentzako. Sorgintxuloko kide hauentzat oraindik behar-beharrezkoa da norbait hemen egotea gau eta egun, "Baina luzaroko ez da hori guk daukagun ideia. Jende horrek

Hasierako egunak nolakoak izan ziren galdetzerakoan kide hauek garbitasuna aipatu zuten gauza guztien gainerik. "Lehenengoko gauza gelak eta komunak garbitzea izan zen, eta horretarako lan-esku asko behar izan genuen.

Orain komunak erabilgarri daude, taberna eta sukaldea ere martxan eta talde bakoitzeko kideak gure gelak egokitzen ari gara".

Lokaletako leihoak konpon-

Sistema kapitalista honi aurre egin nahi diogu, eta honekin batera ama lurraren espekulazioari ere

Arrate Diez

Joan den urtarrilaren 5ean Karmelo elizaren ondoko lokal batzuk okupatu zituzten Santutxuko gazte batzuek. Bertoraino hurbildu gara eta Sorgintxulo Kultur Elkarteko kide batzuekin egon gara. Kide hauen esanetan "Auzoko jende askok bat egiten genuen lokalen falta zela eta, hau da, komuneko kezka nagusi bat genuen, ez geneukala lokalik aktibitate ezberdinak aurrera eramateko. Beraz, jakinda lokal hauek hamasei urte zeramatzatela itxita, okupatzea erabaki genuen". Sorgintxuloko kide hauek euren helburuak oso argi adierazi dizkigute. "Sistema kapitalista honi aurre egin nahi diogu, eta honekin batera ama lurraren espekulazioari ere. Gure ustez zentro zibikoak ez ditu inondik ere auzoko beharrak



hemen bazkaltzen du eta horretarako ere sukalde bat daukagu, bertan sukaldaritza batzordekoak euren lanak egiten ibiltzen dira".

tzen ari gara, eta zinemako taldeak, adibidez, gauza guztiak prestatzen hasi da zine emanaldiak eta beste hainbat gauza eskaintzeko.

Talde asko biltzen dira Sorgintxuloko lokaletan, batzorde asko sortu dituzte (antzerkia, mendi taldea, malabareak, artea,

lokal hauek pertsona ezberdinen topagunea izatea lortu dugu eta lortzen ari gara

zeramika, sukaldaritza, informatika...) eta talde bakoitza bere jarduerak aurrera ateratzen saiatzen da. "Kale animazio taldeak jadanik prest dauka erabiliko duen gela. Biblioteka eta ludoteka ere badaude,

Gure ustez zentro zibikoak ez ditu inondik ere auzoko beharrak asetzen, ez du inolako irtenbiderik aurkeztzen eta 'partxe' bat besterik ez da

azken baten lokal hauek pertsona ezberdinen topagunea izatea lortu dugu eta lortzen ari gara". Informatika eta euskarazko kurtsiloak ere martxan daude eta eskulanak egiteko gelan proiektu asko ateratzen ari dira zeramika, marionetak, josteko makina... beraz, ez daukazu aitzakiarik eta zeozer egin nahi baduzu hurbildu zaitetz eta parte hartu.



Batzorde asko sortu dituzte (antzerkia, mendi taldea, malabareak, artea, zeramika, sukaldaritza, informatika...)




jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



Patxi Uribarren

Euskararen ikertzaile eta defendatzailea

- ❖ Orain dela 30 urte heldu zen Santutxura.
- ❖ "Bostak bat" taldearen partaide izanik hainbat hiztegiaren gilea izan da.
- ❖ Euskara ez dela desagertuko uste du.



Patxi Uribarren edo Aita Patxi orain dela hiru hamarkada heldu zen Santutxura. Teologia eta euskal filologiako ikasketak bertan bukatu zituen, Karmeloko elizan hain zuzen ere. Gero, eliza honetan abade moduan hasi zen lanean eta euskara ikertzen eta lantzen. Nabari zaio euskararen barnean hainbat urtez aritu eta gero bere hizkuntzaren maitale eta defendatzailea dela. Santutxura heldu zenean, auzoan jende gutxiago bizi eta jendearen arteko komunikazioa estuagoa zela dio. Hala ere, euskal filologo eta abade honek gustuko du auzoa eta bertan zein Mahatserri guztian euskara mantenduko dela uste eta espero du.

❖ Unai Cuevas

Nola hasi zinen euskararen munduan?

Nik ikasketak euskaraz burutu nituen eta horrela hasi nintzen euskararekin harremanetan. Ikasketak aurrera joan ahala, eta Karmelora etorri ginenean ikasketak Bizkaieraz ematen genituen. Karmelon bertan, euskarazko aldizkari bat atera genuen "Gogoz" deiturikoa eta honetan ere euskara lantzen genuen.

Nola tartekatzen duzu euskararen alorrean aritzea eta abade bezala aritzea?

Posible da. Lehenago historian ere agertzen dira euskal munduan hainbat apaiz, erlijoso etab. euskara ikertzen ari zirenak. Beharbada, asti gehiago behar izatea suposatzen du, baina hala ere posible da.

"Bostak Bat" lantaldeko kidea zara eta besteak beste "Hiztegia 3000" atera duzue. Nolako esperientzia izan da

zuretzat talde honetan aritzea?

Bostak bat taldeko esperientzia ez da gaurkoa. 1984an lehen hiztegia atera genuen, sinonimoen hiztegia hain zuzen ere. Momentu hartan sinonimoen premia zegoen eta atera genuenean izugarritzko arrakasta izan zuen. Gero, euskara hutsezko hiztegia atera genuen 1986an, honen beharra ere baitzegoen. Ondoren beste bi gehiago atera genituen eta atera dugun azken hiztegia izan da "Hiz-

tegia 3000". Egin izan dugun lana ikusten genituen beharrak edo hutsuneak betetzea izan da.

Esperientziak esaten dit ordu asko sartu behar direla. 15 hitzen esanahia osatzeko ordu bat behar da, beraz, pentsa ezazu 45.000 hitz dituen hiztegi hau egiteko zenbat ordu behar diren. Denbora asko eskaini behar diozu honelako lan bati.

Zenbat urte daramatzazu Santutxun?

Hogeitamar urte. Urte guzti hauetan Karmelon egon naiz: ikasketak hemen bukatu nituen eta jarraian hemen lortu nuen lana.

Orain dela gutxi, euskara laister desagertuko den hizkuntza bat dela idatzi du norbaitek egunkari batetan. Zer uste duzu honi buruz?

15 hitzen esanahia osatzeko ordu bat behar da, beraz, pentsa ezazu 45.000 hitz dituen hiztegi hau egiteko zenbat ordu behar diren

Hori esaten edo idazten dutenek, beraiek ere ez dute sinisten. Gerra ondorengo garaietan, antzeko beldur bat bazegoen euskaldunen artean, baina geuk esaten genuen geu bizi garen bitartean euskarak iraungo du. Eta gero,

ikastolak eta sortu zirenean guraso askok esaten zuen gure seme-alabak bizi diren bitartean ere ez da galduko. Beraz, horrek esan nahi du, geure gizartean gazte askok euskararen alde apostua egin duela eta orduan ez da hain erraz galduko.


Hainbat urtetan egon izan zara Santutxun. Zer aldaketa somatu

duzu etorri zinenetik gaurdaino?

Beharbada, garai hartan denok hobeto elkar ezagutzen ginen. Horregatik, gaur egun denon artean hobeto elkar ezagutzera jo beharko genuke. Lehen errazagoa zen komunikazio hobea izatea, jende gutxiago bizi baitzen.

Orain dela gutxi Karmeloko zine ohia okupatu egin dute. Baina lokal horrek badu bere historia. Konta eiguazu pixka bat.

Talde asko aritu izan dira lokal horretan lanean. Gaztedi dantza taldea, euskarazko gau eskolak ere bertan ematen ziren, katekesia ere han ematen zen eta beranduago umeentzako eta gazteentzako zerbitzu bezala zinea martxan jarri zen. Beraz, nahiko zaila izaten zen denen artean konpontzea; tira-bira ugari izaten ziren baina azkenean konpondu egiten ginen. Momentu batetan euskaltegia bertan eraikitzea edo bertara



eramatea ere pentsatu zen, azkenean Aita Pernet kalean geratu zen.

Beranduago udaletxeakoak etorri ziren lokalaren egoera aztertzeraz eta haga batzuen

egoera ona edo egokia ez zela ikusi zuten eta eta ixtea erabaki zuten. Itxi egin zuten ordenamendu berri bat atera zelako, eta honen arabera lokal horien egoera ez zen aproposena eta jausteko arriskua zegoela ikusi zuten. Dena dela, momentu hartan zerbitzu baliagarria eskaini zion auzoari.

Irakasten egondakoa zara. Zer da zailagoa, irakastea ala abadea izatea?


Modu batean era berekoak dira. Irakasle lana normalean mugatuagoa izaten da, liburu edo metodologia baten arabera jokatu behar delako. Baina hala ere nahiko antzeko lanbideak dira.

Zer balorazio egiten duzu "Bai euskarari" kanpainari buruz?

Kanpaina honek erakusten du euskal gizarteak euskararen aldeko apostu indartsua egin duela; euskal gizarte gogor lan egiten ari dela euskararen alde eta euskara eremu guztietara hedatzeko. Bestetik, oso pozgarria da adin guztietako jendea gauza beraren alde bilduta ikustea kanpai-

na honetan ikusi izan den bezala.

Mahatserria euskaldunen herrialdea izan da. Euskalduna izaten jarraituko al du?



Baietz uste dut. Lehen euskara gutxiago hitzegiteko edota euskarak atzerakada sufritzeko arrazoia inmigrazioak izaten ziren. Jende ugari etortzen zen kanpotik, haiekiko harremana gaztelaren bidez ematen zen eta kanpotik etorri-

tako jendearen familiek ez zuten euskaraz hitzegiten. Honen ondorioz, euskarak atzerakadak sufritu zituen Mahatserrian. Baina orain, inmigrazio oso eskasa ematen da eta euskaraz hitzegiteko aukera gehiago dago. Gainera, hainbat ikastola ere baditugu eta gazteek euskararen alde apostu egitean etorkizuna ondo ikuste dut.

Auzoko arazo eta auzoko jendetik gertu dagoen norbait sentitzen al zara?

Lehen gehiago lan egiten nuen auzoko arazoetan, batez ere euskararen munduan (gau eskolak). Orain agian ez dut hainbesteko harremanik, edo ez nago hain sartuta. Horrek ordu asko suposatzen ditu edozein pertsonarentzat.

Zein da zure ustez auzoan dagoen problematika larriena?

Galdera laburrak

Amets bat?

Euskal Herriak askatasuna lortzea.

Abesti bat?

Telesforo Monzón-en "Bai euskarari".

Pertsonaia historiko bat?

Ana Goiri eta Telesforo Monzón.

Izen bat?

Ibabe (neska izen arabiarra).

Herri bat?

Aramaio.

Liburu bat?

Josu Naberanen "Sugearen Iraultza".

Mende bat?

Bakarrik batetan bizitz oso zaila da mende bat aukeratzea.

Hitz bat?

Askatasuna.

Euskaltzale bat?

Hainbat egonik zail egiten zait bat aukeratzea.

Kezka edo ardua bat Euskal Herriak momentu honetan bizi duen egoera.

Nik uste dut, nahiz eta metroa egin duten, zerbitzu falta dela auzoak duen arazorik larriena. Zerbitzu gehiago beharko lituzke.

MAHATSERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

"El niño"-k milioiak banatu zituen Santutxun



"El niño" loteria zozketaren sari nagusieak Santutxun izan zuen erdigune, bertan saldu baitzen. Auzo honetako Lauaxeta enparantzako 51. administrazioak 33.638 zenbakiko ia 10 serie saldu zituen, horietako gehienak Fika kaleko Itxas Bide

tabernara joan zirelarik. Taberna honek, zenbaki saridunaren bitartez 2.640 milioi banatu zituen Santutxun zehar. Aipatu beharra dago, administrazio honek maila honetako sari bat banatzen duen lehen aldia duela.

Juan Pablo Diegez kalean, bederatzi hilez espetxean egon ondoren

Juan Pablo Diegez, Bermeon bizi den santutxuarra otsailaren 15ean aske utzi zuen Madrilgo Auzientzia Nazionalak, bere familiak 35 milioitako fidantza ordaindu ondoren. Juan Pablo Diegez bederatzi hilez egon da espetxean. Tarte horretan bere lagun eta sen-

diek hainbat aldiz eskatu zuten Juan Pablo aske utz zezatela, gaisotasun larria baitzuen; bere askatasuna eskatzeko plataforma bat ere sortu zen. Belaunean operazio baten beharrean dago eta horrez gain arrisketsu arazoak ditu; lo egiteko, makina baten beharra du.

Santutxuko taberna batean lapurtzeagatik atxilotua

Udaltzainek 36 urteko gizon bat atxilotu zuten Santutxu kaleko taberna batean lapurtzeagatik. Harrapatu zutenean, gizona mostradore atzean izkutaturik zegoen eta 39.000 pezeta, loteria dezimo batzuk eta 6 pakete tabako zeramatza gainean. Honetaz gain, polizia aditzera eman zuenez, makina txanponjalea ere puskatu egin zuen.

Otxarkoagan ekialdeko aldaeraren kexu

Otxarkoagako familien elkarteak, ekialdeko aldaeraren lanek auzoko eskola profesionalaren inguruetan istripu arrisku larria sortarazten ari direla salatu du. Auzokideek, kamioi ugariaren joan-etorriek eta loka-tzak sortarazi dezaketelako kalteen erantzunkizuna Bizkaiko Foru Aldundiari egozten diote.

Begoñan Hirugarren Munduaren aldeko merkatu txikia

Pasa den abenduan, eta hirugarren urtez jarraian, Bilboko Gotzaindegiak merkatu txiki bat egin zuen Begoñako Santutegiko ataripean. Merkatu honetan bildutako dirua bi proiektuetarako erabiliko da: Quiton tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako etxe bat eraikitze eta Congon arrainak hazteko urtegiak berreskuratzeko.

Etxebizitza berriak Mina del Morron

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sailari atxikiturik dagoen Visesa elkarte publikoak, Mina del Morron egingo diren babes ofizialeko 257 etxebizitzaren lanak esleitu ditu. Urbanizazio berriak, trasteleku eta garajeak izango ditu eta 2001. Urterako bukatuta egongo da.

Tanatorioaren inguruko gatazka konpondu da azkenean

Bilboko udala eta ehorztetxe enpresaren arteko akordioaren ondorioz bukaera eman zaio tanatorioaren gatazkari. Azkenean, tanatorioa Gas enparantzan egingo da. Akordioaren ondorioz, udalak Lasa jatetxearen lokalak 240 milioitan erosiko ditu eta Bilboko ehorztetxeak Gas enparantzan dauden orubeak 73 milioitan. Beraz, orubeen trukaketa baten ondorioz behin betiko akordio batera heldu dira inplikaturiko bi aldeak. Gogoratu beharra dago, gatazka honek bi urte baino



Artagan gozotegiak Lasa jatetxea erosi du

Artagan gozotegiak Lasa jatetxea erosi du jatetxe gisa berirekitzeko. Erosketa honen bidez, udalak ez dizkio tanatorioko ehorztetxeari 240 milioiak ordaindu beharko. Hau zen kontratuan agertzen zen puntuetariko bat eta gainera kantitate altuago baten truke saltzen baldin bada soberakina Udalak bereganatuko du.



Lokalaren kudeatzaile berriek aspaldian Lasan egiten ziren jaunartze eta ezkontza janaldiak berreskuratu nahi dituzte. Hauetaz gain, eta Bilbo jasaten ari den "boom"-a aprobetxatuz, lan bilerak edota agur-bazkariak eskaini nahi dituzte. Beren eskaintza, euskal sukaldaritza izango da eta honen barnean bakailoa bereziki, nahiz eta karakolak, tripakailu eta musturrak faltan ez izan. Osagarri gisa, jatetxeak arrain eta okela erretetia izango du eguneko menua eskaintzeaz gain.

Jabe berrien asmoa, jatetxea hilabete pare bat barru irekitzea da, eta izena Artagan edota Mikeldi izango da.

gehiago iraun dituela, 1996ko uztailaz geroztik hain zuzen ere.

Gelaya
INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA -
SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfona: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

BASTERTXU



TABERNA
Ricardo Bastida plaza

ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

Obrak Txurdinagako institutuan

Txurdinagako I.B. Gabriel Aresti institutuan obrek aurrera doaz. Kasu honetan, sute-eskailerak eraikitzen ari dira eta obren amaierarako ez da asko geratzen. Obrak, orain dela bi hilabete hasi ziren eta dagoeneko erdia baino gehiago egin dute. Obrak bukatzerakoan gauza bakarra geratuko zaie: euren erabilera frogatzea sute-itxura baten bidez.



Otxarkoagako ikastetxe bat Olentzero 98 lehiaketaren irabazle

Otxarkoagako Francisco de Goya eta Legazpiko Haztegi ikastetxeak izan ziren Europistas enpresak antolatutako Olentzero 98 lehiaketaren garaileak. Bizkaiko eta Gipuzkoako 215 ikastetxek parte hartu zuten lehiaketa honetan eta antolatzaileen arabera maila oso altua egon zen. Egindako Olentzero horietako batzuk Bilbo-Behobia autobidean ikusgai egon ziren gabonetan. Izan ere, bidesariak ordaintzeko gunetan jarri zituzten autogidari guztiek ikus zituzten. Hau honela, irabazleek 30.000 pezetako saria eraman zuten.

Otxarkoaga-Txurdinagako barrutiaren populazioak gora egin du

Bilboko barruti guztien populazioak beheruntz egin du Otxarkoaga-Txurdinagakoak izan ezik. Barruti honetan, orain dela lau urte baino 2.000 pertsona gehiago bizi dira (1994an 28.558 eta

1998an 30.157). Auzo hauetan ere, Bilboko 0 eta 9 urte bitarteko ume gehienak bizi dira.

Begoñako barrutia, aldiz, jende gazte gehien biltzen duena da, 20 eta 29 urte bitarteko 8.712 gazte bizi baitira.

Ikasketei dagokionez, Otxarkoaga-Txurdinaga barrutian titulurik gabeko pertsona gehien bizi dira, orotara, 4.370 pertsona ikasketa gabe.

Bestalde, esan beharra dago, orokorrean Bilbok 15.000 bizilagun galdu dituela.

Begoñako baselizak bere lehen ekitaldi ekumenikoa ospatu zuen

Meza honetan, eliza luteranoko eta eliza anglikanoko ordezkariak parte hartu zuten, abade kristau batzuekin batera. Mezaren buru, Bilboko gotzain laguntzailea den Carmelo Etxenagusia izan zen. Homilia honetan, erlijiosoek lau hizkuntza erabili zituzten: alemaniera, ingelesa, euskara eta gaztelera.



**PUNTAKO KIROL
MARKAK**

SANTUTXU SPORT

KARMELO, 9

Tfona: 412 37 01

SANTUTXU

Santutxuko bitxi-denda batean lapurreta

Bi gaztek Santutxu kaleko Gamboa bitxi-dendan lapurreta egin zuten. Gazteak, erloju bat erosteko aitzakiaz sartu ziren dendara, baina azkenean erloju batzuk lapurtu zituzten eta oinez ihes egin zuten. Lapurreta honetan, ez zuten inolako mehatxuzko armarik erabili.

Motor istripua Bolueta-Etxebarri errepidean

42 urteko santutxutar bat hil zen Bolueta eta Etxebarri bitartean dagoen Lezama Leguizamon kalean motor istripua izan eta gero. Motorrean zihòala, txakur bat bidera atera zitzaion eta txakurra baztertu nahi izan arren, beraren kontra jo zueneta ondorioz txakurra ere hil egin zen. Gizona errepidean etzanda geratu zen eta Gurutze Gorrikoak konortera erakartzen saiatu ziren, baina egoera oso larria zenez Galdakaoko ospitalera eraman behar izan zuten. Bertara heldu eta gutxira hil egin zen.

Taberna bat erre zuten Santutxuko Karmelo kalean

Karmelo kaleko Los Condes taberna kaputxadun batzuk erre egin zuten urtarrilaren 5eko goizaldean. Taberna PP-ko jarraitzaile batena omen da eta 13 egun zeramatzan irekita Abuztuan gas leherketa bat jasan eta gero. Tabernak dituen solairu biak guztiz kiskalita geratu ziren erasoaren ondorioz.

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22

Santutxuko Merkatarien Elkartek gabonetako erakusleihen sariak banatu zituen

Lehiaketa honen seigarren aldiko sariak Avenida Hotelean banatu ziren. Merkatarien elkarteak parte hartu zuten 32 dendariei zilarrezko erretilu bat oparitu zien.

Oihalen alorrean erakusleiho onenaren saria Maria Luisa Araguz-en dëndak eraman zuen. Honek, bere alor industrialeko azoka batetara joateko aukera izango du. Ondoren 50.000 pezetatoko 3 sari banatu ziren, irabazleak hauek izan zirelarik : Nazabal optika, El arca de Noe (altzariak, eskulanak, hornikuntza...) eta Hate (opariak).

Orain dela gutxi Santutxura etorritako Mágica liburudenda esoterikoak, Vecinos de Santutxu aldizkarian doanezko publizitate orrialdea irabazi zuen. Azkenengo saria, auzokideek erabakitako saria, Isaland-ek eraman zuen.

OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

Gure auzoan ekinean
*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Euskaraz bizi!

Telefonoa: 4121877

SANTUTXUKO EUSKAL TXOKOA

Iturriaga 55, 1 ezk.
48004 Bilbo
tfnoa. 944 73 54 48
asapala@eusnet.org



Dispertsioa: zigor bat gehiago

Sebas Prieto Otxarkoagako preso Huelvako espetxean dago; 1000 km-ra. Inma Patxo begoñarra, Alicanten; 766 km.ra. Agustin Almaraz santutxuarra, Ocañan; 533 km.ra. Juan Pablo Diegez santutxuarra, Valdemoron; 520 km.ra. Juan Luis Camarero santutxuarra, Alcala Mecon; 500 km.ra. Bigarren Ibarra santutxuarra, Soto del Realen; 444 km.ra. Arantza Garbayo otxarkoagarra, Avilan; 400 km.ra. Tasio Erkizia santutxuarra eta Edorta Ibarzabal begoñarra dira espetxe zigorra Euskal Herrian betetzen ari diren Mahatserriko preso politiko bakarrak; Tasio Erkizia Basaurin dago eta Edorta Ibarzabal Martutenen.

⇒ Aitziber Laskibar

Legeak dioenez, presoek bere bizilekutik edota ingurune sozialetik ahalik eta gertuen egon behar dute, kartzelaren eginbeharra e g o z t e n zaien delituei dagoen zigorra kitatu, eta berriz ere gizartaratzeko presoak prestatzea baita. Baina legeak hori dioen arren, errealitatea ez dator teoriarekin bat. Hori dela eta, Mahatserriko euskal presoek ehundaka kilometrotara betetzen dituzte gaur egun espetxe zigorrak.

Preso guztiek eta bere senitarteko zein lagunek dituzte modu batean edo bestean larritasunak; Inma Patxok zortzi urte daramatza espetxean, Sebas Prietok lau urte paseak... Baina Mahatserriko presoen egoeraz galdezka aritu ondoren, Agustin Almarazen kasua azpimarratzeko iruditu zait.

Agustin Almarazek hiru urte pasatxo daramatza espetxean. Dispertsioaren eragina edo trasladoen eragina behintzat, bereziki pairatu du santutxuar gazte honek. Izan ere, hiru urte haue-

petxe barruan bizitza normala egitea, aktibitateetan parte hartzea, jarraikortasun bat mantentzea... Gutunak jasotzeko orduan edota lagunaren bisitak onartzeko orduan ere arazo bereziak izaten

ditu aldaketa horien eraginez.

Duela hila-bete batzuk, auzoko preso bat bisitatzera joan nintzen Madrilerara. Ikus-teko ordua iritsi zai nengoelarik, ijitu bat hurbildu zitzaidan. Carabanchelen hain ohikoak ziren ijitu kuxkuxero

haietako bat. Hurbildu eta nongoa nintzen galdetu zidan.

Nik, Bilbokoa nintzela. Ijituak, ez zekiela Bilbo non zegoen, ia urruti al zen. Nik, baietz, nahiko urrutitik nindoala erantzun nion. Horrekin konforme ez eta, non zegoen azaltzeko eskatu zidan interes handiz. Eta nik: "Bilbao, San Sebastián... ¿sabe dónde está?". Eta beltzez jantzitako

ijituak pozik: "¡Ah, sí! ¡San Sebastián!, ¡San Sebastián de los



"¿Quinientos kilometros?
¿Allí no hay cárceles?".
Tuntun aurpegiarekin, zer erantzun jakin gabe geratu nintzen, ez bainuen erantzun logikorik aurkitu

kin. Etengabeko aldaketen eraginez, ezinezkoa izaten zaio es-

Reyes!". San Sebastián de los Reyes, Madrilgo sarreran dagoen herri bat da. Baina bertatik Carabanchelera kilometro batzuk badaude, eta ijito gajoari urruti zegoela iruditzen zitzaion. Nik orduan, ezetz, hura beste San Sebastián bat zela eta ni askoz urrutiagotik nindoala esan nion; Euskal Herritik joana nintzela (ez zekien non zegoen eta ez zitzaion entzuna ere egiten) eta 500 kilometro egin nituela preso bisitatu ahal izateko. Bere senarra bisitatzera Madrilgo auzoren batetatik joana zen andre ijitua guztiz harrituta geratu zen. "¿Quinientos kilometros? ¿Allí no hay cárceles?". Tuntun aurpegiarekin, zer erantzun jakin gabe geratu nintzen, ez bainuen erantzun logikorik aurkitu. Hori gutxi baltiz, ia haraino nola joaten nintzen galdetu zidan. Nik, autobusez eta gero metroz joaten nintzela. Orduan, aurpegi pentsakorra jarri, eta esan zidan: "Pues eso tiene que costar mucho dinero, ¿no?, ¿cuánto te cuesta?. Eta nik: "El autobús, unas cinco mil pesetas". Orduan andreak: "Entonces tú sólo vives y trabajas para venir a las visitas!" Kristal lodi eta barroteek urrunduta, 40 minutu eskaseko bisitaldia egin eta bueltarako gertzen zitzaizkidan 500 kilometroak egiteko prest autobusera nindoalarik nire baitan pentsatuen: "noren buruan sartuko da ba lagun edo familiarrekoren bat

bisitatzeko horrelako bidaiak egin behar izatea, han bertan hainbat espetxe izanik? Normala da ijituak ez ezer ulertzea, ez baita ulertzekoa". Halere, ondo pentsatuta, ezin nintzen kexatu, nituela preso bisitatu ahal izateko. Bere senarra bisitatzera Madrilgo auzoren batetatik joana zen andre ijitua guztiz harrituta geratu zen. "¿Quinientos kilometros? ¿Allí no hay cárceles?". Tuntun aurpegiarekin, zer erantzun jakin gabe geratu nintzen, ez bainuen erantzun logikorik aurkitu. Hori gutxi baltiz, ia haraino nola joaten nintzen galdetu zidan. Nik, autobusez eta gero metroz joaten nintzela. Orduan, aurpegi pentsakorra jarri, eta esan zidan: "Pues eso tiene que costar mucho dinero, ¿no?, ¿cuánto te cuesta?. Eta nik: "El autobús, unas cinco mil pesetas". Orduan andreak: "Entonces tú sólo vives y trabajas para venir a las visitas!" Kristal lodi eta barroteek urrunduta, 40 minutu eskaseko bisitaldia egin eta bueltarako gertzen zitzaizkidan 500 kilometroak egiteko prest autobusera nindoalarik nire baitan pentsatuen: "noren buruan sartuko da ba lagun edo familiarrekoren bat

duak alde batera utzita. Baina presoak pertsonak dira, eta norbanako bakoitzak bere ingurune afektibo du. Ia seihun pertsona horietako bakoitzaren sendi eta lagunek, bere hurkoa espetxean izateaz gain, barroteek ezartzen duten mugaz gain, ehundaka edota mila kilometroen urruntasuna gehitzen zaie egun, nahiz eta legeak bestelakorik dioen. Eta zer esanik ez deportatuez. Sarritan ahaztu egiten direla dirudien arren, hauek bai jasaten dutela urruntasuna! Santutxuko Arrugaeta dugu horren adibide. Cuban dago deportatuta. Familiak, bisitatzera joateko oso aukera gutxi ditu, bisita bakoitzak suposatzen duen kostu ekonomikoa dela eta. Bestalde, gizartearen gehiengoak dispertsioaren aurkako eskaera bere egin du eta euskal presoak euskal herriratzearen aldeko apostua egin du argi eta garbi. Euskal Herri mailan hainbat ekimen egin dira jada, legea bete dadila eskatuz. Auzo mailan ere makina bat izan dira mugimenduak; horra hor urtarrilaren 29an hainbat alderdi politiko eta mugimendu sozialek Santutxun deituriko manifestaldia. Hala ere, dispertsioak bere horretan jarraitzen du, duela urte gehiegi interes politikoak legearen aurretik jarri eta euskal preso politikoak sakabanatu eta urruntzea erabaki zenetik, eta bada garaia politika krudel horri amaiera emateko.



Otxarkoagako Sebas bisitatzera joan behar dutenek bere hurkoa 40 minutuz ikusi ahal izateko mila kilometro egin behar dituzte

Gizartearen gehiengoak dispertsioaren aurkako eskaera bere egin du

Joxe Garcia espetxetik irten den Mahatserriko azkenaurreko presoak sei hilabete eman ditu kartzelan. Dispertsioari buruz hitzegiten denean, senitartekoengan duen eraginaz hitzegiten da gehienbat; baina guk, presoarentzat zer suposatzen duen ere jakin nahi izan dugu. Hona hemen bere hitzak:

Dispertsioak presoarengan duen eragin zuzenena, familiarengan pentsatzea da. Badakizu zure familiak astebururo bidai luzeak egiten dituela zu ikustera joateko, eta beti izaten da ondo iritsiko ote direnaren kezka; beti duzu istripuren bat izango dutenaren beldurra. Bestalde, kolektibo bezala funtzionatzeko eskubidea ukatzen dizu, zeren normalean modulu bakoitzean bi edo hiru euskal preso edota bakarra egoten dira. Modulu ezberdinen arteko komunikazioa, ia ezinezkoa da.

Kartzela barruko baldintzak ere oso ezberdinak dira Euskal Herrian edo hemendik kanpo. Euskal Herrikoetan askoz baldintza hobeak daude; bai telefono deiak, bai bisitak, paketean sartu daitezkeen gauzak... Bestalde, espainiar kartzeletan egonik ez duzu euskaraz aritzeko aukera handirik izaten. Euskaldun lagunekin bai, baina gainontzeko guztiakin ezinezkoa da. Gainera, ezinezkoa da euskarazko telebista edo irratarik entzutea, hizkuntza aldetiko eta informazio aldetiko gabezia handi bat sortzen delarik. Prentsa ere oso berandu iristen da; pakete bidez iristen bazaizu, hamabostean behin eta harpidetza bidez jasoz gero lau, bost egun edo astebeteko atzerapenaz.

Bestalde, nahiz txikikeria dirudien, leihotik kalea ikusteko zortea baduzu, ikusten duzun paisaia hemengoarekiko oso ezberdina da. Madril aldetik behintzat paisaia oso lehorra da; marroia, horixka... Hemengo berdearekin konparatuta, oso pobrea. Horrek ere urruntasuna gehiago sentiarazten dizu, "morriña" be-rezi bat sortarazten dizu.

Azpitarratzeko beste gauza bat, beste preso

arruntekin komunikatzeko zailtasuna da. Mendiari buruz, adibidez, ezin duzu hitzegi. Ez dira mendizaleak eta ez dute ulertzen mendizale izatea ere. Athleticari buruz ez dute ezer ezagutzen. Ez dakite zer den elkarte bat edo txoko bat... Beraiekin ezin duzu elkarrizketa bat mantendu, ez bada drogari buruz edo atrako bati buruz. Euskal Herriko espetxeetan egonez gero, beste presoekiko harremana beste mota batetakoa izango litzatekeela uste dut. Dispertsioak jendearekiko erlazioa guztiz mugatzen du.

Postari dagokionez, astean bi gutun idazteko muga duzu eta gutun guztiak interbenituta daude. Ondorioz, euskarazko gutunek hilebete behar izaten dute zure eskuetara iristeko eta gaztelaniazkoak hogeit bat egun; beno, beste leku batzuetan gutxiago eta beste batzuetan gehiago.

Bisitetara bestalde, badakizu familia beti joango dela baina lagunak bisitatu iritsi arte denbora asko pasatzen da. Normalean hilebete baino gehiago pasatzen da baimenak onartuak izan arte (onartzen badituzte behintzat), eta dispertsioaren eraginez bidaiak dirutza handia eskatzen badu, jende askok ezin du diru hori ordaindu, zailtasunak areagotu egiten direlarik. Bestalde, hilean behin familiarekin izaten den "vis a visa" geroz eta leku gehiagotan jartzen dute astean zehar. Ondorioz, familiak egun oso bat edo egun terdi gutxienez galdu behar du zurekin ordu terdiz egon nahi badu; jende askok zailtasunak ditu lanean egun horiek eskatzeko. Euskal Herrian egon ezker, nahikoa izango litzateke egun erdia edo hiru ordu galtzarekin.

**Zure
publizitatea
hemen**
944 735 448

bertin
MAHATSERRIKO ALDIZKARIA


Sei Izar Kross-a inoiz baino jendetsuagoa

Iaz baino 161 korrikalari gehiagok parte hartu zuten. Antolakuntza lanetan ehundik gora pertsona aritu ziren.

⇒ **Unai Cuevas**

Aurtengoa Sei Izar Kross-aren 21. edizioa izan da. Urtarrilaren 6an eguraldi eguzkitsua atera zen Santutxun eta beroa ere nabaria zen auzoan. Arrazoi hauengatik edo beste batzuegatik, urtero kross-aren arrakasta handituz joan da, aurtengoa baino jende gehiago bildu baitu. Iaz baino 161 korrikalari gehiagok parte hartu zuten Santutxu, Txurdinaga eta Boluetako kaleetatik zehar egin zen lasterketa honetan. Guztira, 840 korrikalari abiatu ziren Basarratetik 7,5 kilometrotako ibilbidea betetzeko asmoz. Goizeko 11etan

hasi zen lasterketa eta lehenengoak 23 minutu eskas beranduago helmuga gurutzatu zuen. Azkenengoak, bere aldetik, minutu dextente gehiago behar izan zituen. Baina popularra edo herrikoia denez, denek Santutxu Krossaren Familia Elkartearen kamiseta polita jaso zuten helmugara iritsi ziren guztiek.



Lehenengo biak helmugara eskutik helduta sartzen

Umeek, nagusiek baino goizago jaiki behar izan zuten beren lasterketa 10,30etan hasten baitzen. Baina, goizago jaikitzen denari Jainkoak lagundu ohi dionez, bi kilometro besterik ez zituzten bete behar izan.

Orokorrean egun ederra izan zuten Santutxutarrek, bai eguraldi aldetik baita partaidetza eta giro aldetik. Aipatzekoa da kaleek giro aparta erakusten dutela egun honetan eta aurtengoa ez da geratu atzean; jende ugari hurbildu zen errepide albora korrikalarien esfortzua txalotzeko.

Eta hau guztia ondo atera zedin, Santutxu Krossaren Familia Elkartetik adierazi ziguten bezala, krossaren inguruan lan egiten ibilitako jende guztiaren lana azpimarratzekoa izan da aurtengoa. Orotara, 100dik gora lagunek parte hartu zuten krossaren antolakuntza eta burutze lanetan. Honekin argi eta garbi geratzen da, Familia Elkarteak esan ziguten bezala, krossak oso onarpen ona duela auzoan. Eta horrela jarrai dezala urte askotan.

Santutxuko Familia Elkarte

«Guk nahi duguna kross popular bat izatea da, eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea»

Zein da kross-ari buruzko zuen balorazioa?

Gure balorazioa oso ona da. Uste dugu aurtengoa baino jende gehiago bildu da, gainera eguraldiak lagundu egin digu eta beraz pozik gaude. Inoiz baino jende gehiago bildu da.

Azken urteotan ibilbidean aldaketa ugari egon dira. Zergatik?

Aspalditik dagoen lehen arazoa trafikoa da. Trafikoa dela eta polizia municipalarekin konpondu behar gara zeren eta askotan eskatzen diegun ibilbidea ezeztatu egiten digute, kale konkreturen bat moztea ezinezkoa baita.

Bestalde, aurkitu dugun beste arazo bat zera izan da: Txurdinagara joan garenean, gero berriro jaitsi gara kiroldegira eta handik igo egin behar izan da Basarrateraino. Eta aldapa hori (Kiroldegitik Basarrateraino) gogorra egin zaio jendeari eta horregatik jende ugari bere kezka adierazi digu eta kentzea eskatu digute. Orduan, beste bide bat aukeratu genuen, poliziarengana joan ginen, baiezkoa eman ziguten eta oraingoarekin jendea pozago azaldu da laburragoa eta bigunagoa delako.

Hau izango al da behin-betiko ibilbidea?

Bai. Politagoa izango litzateke Santutxutik beste bira batzuk eman ahal izatea baina zera gertatzen da: kross-a popularra denez, lehenengo eta azkenengoen arteko distantzia oso handia dela. Eta Santutxutik zehar zirkuluak egingo bagenu denak nahastuko lirateke eta desastre bat izango litzateke. Beraz, pentsatzen dugu oraingoa zirkuito aproposena dela eta normalean beste kross edo lasterketa batzuetan korrika egiten duen jendeak ere horrela pentsatzen du.

Kross-ak popularra izaten jarraituko du?

Bai, hori da auzoko familia elkartearen asmoa. Popularra izaten jarraitzea da gure asmoa nahiz eta batzuk ados ez egon (normalean korrika egiten aritzen direnak). Guk nahi duguna kross popular bat izatea da, eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea.



SAILKAPENAK


Senior-etan :		3. Santi Alvarez Redondo
1. Mikel Fernandez de Ganboa	22.33	24.21
2. Fernando Zuluaga	22.33	4. Pedro Torres
3. Francisco Javier Castro	22.53	24.40
4. Tomas Arranz	22.58	5. Txetxu Iglesias Martinez
5. Josu Inchaspe	23.04	24.40
6. Ramon Otegi	23.19	
7. Unai Garaiona	23.25	40-59 urte bitarteko emakumezkoak :
8. Jon Andoni Bilbao	23.38	1. Ana de Miguel
9. Sergio Tuñon	23.40	33.28
10. Gorka Galvez	23.45	2. Eva de Miguel
		33.28
		3. Imelda Plaza
		34.28
		4. Asun Betolaza
		37.26
		5. Dora Alonso
		37.26
		60 urtetik gorako gizonezkoak :
		1. Eugenio España
		34.31
		60 urtetik gorako emakumezkoak :
		1. M^a Angeles Martinez
		Alejandra
		39.06
		Infantilak (mutilak) :
		1. Iker Madariaga
		5.55
		2. Asier Martinez
		6.23
		Infantilak (neskak) :
		1. Jasone Munitxa
		6.57
		2. Patricia de Angel
		8.05
		40-59 urte bitarteko gizonezkoak :
		1. Iñaki Mujica
		23.05
		2. Angel Hernandez Ga-
		llego
		23.54

Nabar Zarra ga

gazte antzerkilari fina

"Bihotz Erre" antzerki taldean hasi zen eta ordutik hona, ez da gelditu. Gaur egun Barakaldoko Antzerki Ikastegian dabil eta beste batzuekin batera, Sorgintxulon antzerki tailerra emateko asmoa du. Antzerkiaren mundutik bizi nahi duela argi dauka, eta horretarako bidean, lanean jarraituko du jendeak aktoreen lana baloratuko duenaren itxaropenarekin.

⇨ **Zuriñe Uriarte**



Berton: Noiztik antzerkirako zaletasuna?

Nabar: Duela zazpi urte hasi nintzen. Antzerkia zer zen ikusteko egin nuen batez ere. Hasi eta gustatu zitzaidanez, jarraitzea erabaki nuen.

Berton: Non eman zenituen zure lehenengo urratsak?

Nabar: Gabriel Arestiko

Bihotz Erre antzerki taldean hasi nintzen. Bertan klaseak hartzeaz gain, urtean bi edo hiru obra antzezten genituen.

Gero eskola ezberdinetan ibili naiz: Getxo, Basauri... azkenik Barakaldon bukatu dut.

Berton: Gaur egun, beraz, antzerkia ikasten jarraitzen duzu.

Nabar: Bai, hiru urte daramatzat Barakaldoko antzerki ikastegian (BAI). Asignatura ezberdinak ditugu, eta klase praktikoak zein teorikoak ematen ditugu: autoreak, antzerkiaren historia... ordu asko sartzen ditugu astean zehar.

Berton: Zelan dago Mahatserria, antzerki taldeei dagokienez?

Nabar: Nik dakidana, oso talde gutxi dago, egia esan ez dut bat bera ere ezagutzen. Orain, Sorgintxulo zabaldu denez, antzerki tailer bat sortzeko asmoa dago, jendeak antzerkiaren inguruan dakiena besteei irakasteko aukera izan dezan.

Berton: Zeintzuk dira arazo nagusiak antzerkia egiterako orduan?

Nabar: Lokal falta arazo bat da, eta gainera, jendea ez da antzerkia egiteko gehiegi animatzen. Diru kontuak ere arazo izaten dira normalean.

Berton: Diru asko behar da antzerkia egiteko?

Nabar: Ez, beno, egin nahi duzunaren arabera. Hala ere, beti eduki behar da diru kopuru minimo bat, edozer gauza egiteko dirua ezinbestekoa izaten da.

Berton: Posible da antzerkiaren mundutik bizitzea?

Nabar: Bai, nik uste dut posible dela. Hala ere, horretarako bakoitzak bere lekua bilatu behar du, baina guztiontzat dago tokia. Hori bai, konformatu beharra dago, ezin duzu beti protagonistaren paperekin amets egin.

Berton: Etorkizunari begira, zelan ikusten duzu mundu hau?


Nabar: Nik uste, dagoen bezala geldituko da. Euskal Herrian egiten den antzerkia indar nahiko dauka, baina jendea ez da joaten antzerkia ikustera. Publikoa beharrezko elementu bat da, bestela honek guztiak ez du zentzu gehiegirik.

Berton: Bertoko produkzioak modan ipini dira. Zergatik eman da hau?

Nabar: Beno, orain arte, hemengo jendea kanpora joaten zen antzerkia egitera, eta gaur egun jendea hemen gelditzen da. Antzerkia hemen egiteko gogo gehiago dago.

Berton: Zer leku dauka euskarak mundu honetan?

Nabar: Euskara oso gutxi erabiltzen da, eta askotan egiten dena ez da oso ona izaten. Gainera, ez dago testurik euskaraz eta orduan itzuli egin behar dira...itzulpenean zenbait testuk asko galtzen dute.



Berton: Casting-en filosofiaren inguruan, ze iritzi duzu?


Nabar: Antzerkian ez da casting gehiegirik egiten, normalean zuzendariak jendea lanean ikusi eta gustatuz gero, deitu egiten dute. Bestalde, casting-etan bilatzen dutena, normalean, fisiko jakin bat izaten da. Beraiek bilatzen duten fisikoa baldin baduzu, ondo, baina bestela, ez dago zereginik.

Berton: Lehen jende falta dagoela esan duzu. Jendeak interesa erakusten du?

Nabar: Beno, antzerkia egiteko jendea badago, baina askok ez dute interes handirik jartzen eta gero obra egiterakoan, nabaritu egiten da. Gainera, horren ondorioz, jende gutxiago hurbiltzen da antzerkia ikustera.

Berton: "Euskal Herrian aktoreen lana nahiko gutxi baloratua dago" Aitor Mazoren hitzak dira. Bat zatoz honekin?

Nabar: Kanpoan aktorea profesionaltzat hartzen dute, baina hemen balorazioa negatiboagoa izaten da. Aktore izateko, beste edozer egiteko bezala, lan asko egin behar da, eta jendeak sarritan, ez du kontutan hartzen.



Nabar Barakaldoko eskolako kide batzuekin egindako obra baten


Zorionak
euskaltzale guztiei



euskarari

TXAKURRAK

Zorro



Bernagoitia-Gaintzorrotz

Atal berria ipini dugu Bertonen. Mendizale asko eta asko ei ditugu irakurleen artean, eta denok himalayistak izateko sasoia, gogoia, dirua edo beste zeozeren falta dugunez, Euskal Herriko baztertxo bat proposatuko dizuegu hilean behin, animua edukiz gero eta eguraldia lagun, zapatu edo domekako osteratxoa egin dezazuen.

Aurkeztuko dizkizuegun ibilbideak Santutxuko Mintza Taldeak eginekoak dira. Urteetako mendi irteerak batuta dauzkate argitaratu bako liburu batzuetan, bertan, makina bat ibilbide dituzte, mapekin eta eurek egineko marrazkiekin hornituta. Bertonen moldatu baino ez ditugu egin, eta aurkeztu, urteetako lan polit eta isil hau denok ezagutu eta gozatu dezagun.


Hona hemen lehenengoa, Durangalde eta Arratia bitarteko Aramotz mendialdean sartuko gara. Gaintzorrotzeko puntara joango gara hain zuzen.

GAINTZORROTZ (781 m.)

Bernagoitiatik hasita (Euba) Zornotza eta Durango bitartean, N-634aren bazterrean, Euba dugu. Hortxe hasiko da gure ibilbidea.

Euban, Gurutz Gorriaren ondoan, Bernagoitiara doan errepeida hartuko dugu, errebuelta askokoa eta lau kilometro ingurukoa. Behin han, herri osoa zeharkatuko dugu elizaraino.

Eliza ondoan pilotalekua eta etxe batzuk daude, kotxez etorri bagara, bertan utzi beharko dugu. Elizara heldu baino lehen ezkererantz eskola zahararen ondotik irteten da bide



bat, hortik hasiko gara igotzen. Bost minutu inguru geroago hiru bide topatuko ditugu aurrean, erdikotik sartuko gara. Apur bat aurrerago, bidearen ezkerrean, erdi jausita dagoen baserri bat ikusiko dugu, aurrerago egin eta handik gutxira, bide erdian, beste baserri bat ikusiko dugu. Hemen amaitzen da bide leuna. Eskoirantz jarraitzen du bideak, eta hortixek igoko dugu Hirurehun metro aurrerago pinudi bat hasten da, alabrez hesituta dago baina ate txiki bat dauka ezkererantz eta hortik sartuko gara pinudia teilatu bako etxola

bateraino zeharkatzeko. Handik apur bat ezkererantz lepo batera helduko gara. Gaintzorrotzen gailurra ikusiko dugu hortik. Lepotik eskoirantz ehun bat metro ibiliko gara, pinudian zehar apur bat jaitsiz, Gaintzorrotzeko aldatza topatu arte. Biderik ez dagoen arren, harri artean eta pinudiaren ondotik aldatas gogorretik artez igoko dugu tontorreraino. Igoera hau ordu eta laurden baten egin daiteke. Animatzen bazarete, joan zaitezte. Eta gero kontaktu!

HOROSKOPOA

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Zorion aurpegi horregaz zabiz batera eta bestera, jendeak enbidia baino ez daukotsu, zuk segidu holan!
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Badakit zain zagozala, baina oindino udabarria urruntxu dago. Hori bai, neguan be egin leiz gauzak, gero!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Goizero daroazun lo aurpegiagaz kontuz ibili, jendeak behin eta berriz dabil zu ezin saihestuta-eta. Zer? Itxartuteko behingoa!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Zuk bai, kendu hautsa ski-eri, laster Otxarkoagatik Boluetarainoko pista zabalduko daure-eta. Ilusinoa beti izan da ona.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Eta zuk izotzerako patinak erabili gura dozuzala? Lehen bai Artxandan...
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Lasai ibili, beste barik be "plastic-a" kirol noblea da. Zelan ibiltzen dan? Hartu etxeko plastiko zati bat, eta segi atoan Gorbeira!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Apur bat ez bazara espabiletan, zezen motelenak be harrapatuko zaitu txo txo!
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Erlojuak jo eta ez zareala itzartu? Aizu, alperrik da lotarako tapoiak iminten badozuz.
- Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Bai, besterik ez dagoanean kotxeagaz konformatu behar da. Aai, eta kexa gitxiago, danak ez daukie kotxerik-eta!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Bai bai, urtebete baino gitxiago falta da 2000.erako, baina zu oindino XIX. mendean bizi zara. Ez zareala konturatu? Ba hori.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. laztantxua, joan da urteguna, baina lasai, datorren urtean barrero etorriko da. Ez egin negarrik.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Zutaz bai, zutaz akordako da jendea, baina ez pentsa horregatik besteetaz ahaztea daukazunik, aizu!

agenda

- * Eguzkilorea Boluetako Mendi taldeak antolatutako irteera: Martxoak.19tik, 21 arte, Peña Ubiña, Somiedo (Asturiasen) eramango gaituzte.
- * Sagardotegiak zabalik daude aspaldian, eta aurtengo sagardoa oraindino probatu ez duzuenontzat, edo probatuta ere, probatzen jarraitu gura duzuenontzat, Santutxuko AEK-k irteera antolatu du datorren otsailaren 27an. Bazkaria egingo da Hernaniko Larregain sagardotegian, apuntatzeko pasatu Santutxuko AEKtik (Arbidea 21 edo Aita Pernet 9) edo deitu 944 117 656 telefonora.
- * Garizuma betean egongo gara ordurako, baina Santutxun Eleiza Santuaren manamendu guztiei desafiatur, otsailaren 27an berriro irtegaro dira kalera euren aratuzteak, iñauteriak edo karnabalak (aukeratu gehien gustatzen zaizuna) egitera. Beraz, hasi mozorroa pentsatzen, edo preparamen... eta 27an eguerdiko 12etan Karmelo kalera jo eta batu zeu ere festara. 14:30ean herri bazkaria izango, eta arrastiko 6etan erromeria Karmelo plazan.
- * Otsailak 25, osteguna: Zine emanaldia Otxarkoagako Udaltzegan. 19:45ean, "Perdidos en el Espacio" pelikula.
- * Otsailak 25, osteguna: Maskaradari buruzko hitzaldia, Artagan Kultur Elkarteak antolaturik. Arratsaldeko 8etan Santutxuko Herriko Tabernan. Hizlaria: Jabi Erize.
- * Martxoak 5, ostirala: Tasio Erkiziaren bertsoak, musikaz lagunduta. Arratsaldeko 8etan Santutxuko Herriko Tabernan. Antolatzailea: Artagan Kultur Elkarte.

Ereinotzak Haritzari Lizarrako erromerian

(Doinua: Mutil koxkor bat...)

EREINOTZAK

Okasioa izan dugunez Gerry Adams agurtzeko, Euskal Herriaz mintzatu nahi dut bertsoa dela tarteko. Nahiz irlandarren bide berean goazen dagoeneko, kezka berdinek astintzen naute isilune bakoitzeko: "gerri" nahikorik ote daukagu hitzarekin dantzatzeko?

Ez dakit ondo ulertu dudan, bost axola zait gainera, bat edo beste dantza daiteke doinuaren arabera. Bietan gaude kondenuatuak pausuren bat ematera, jakinda igual besteara ez dela pausu berbera... hara zergatik egin dizudan hasierako galdera.

Dantzan hasteko plaza erdia aipatuta bukaeran, barkatu, baina hortan ezin dut zure eritzitik edan. Erdian baino ezkererago nahiago nuke aukeran, gero bidea erakusteko badugu dantza bete lan; edozeinekin egin daiteke ez, ordea, edozelan.

Harekin ere egin daiteke, baina nekatu gaitezke, errepideko "osborne" hura toreatzean hainbeste. Madril aldetik mugimendurik izango denik ez uste; ta deskuidoan dantzalekura gonbidatzen bagaituzte, guk trikitixa askatzerako daude "Macarena" eske.

Gure herriak ez du etsiko, ez horrelakorik esan, bakegintzaren dantzak ezin du atzerapausurik jasan. Horretarako gure doinuak entzun behar dira plazan; jota ondoren arin-arina, dantzari hasi gaitezkan, presazkoa den askatasunak aukera bat izan dezan.

HARITZAK

Zuk badakizu hamaika buelta eman ondoren hutsean, gerria ere erdi gogortu egin zaigula funtsean. Dantzan ikasi ohi dugun arren bikotea zapaltzean, dantza "sueltoan" egin nahi dugu ahal bada aurrerantzean, ez "agarrauan" hainbat urtetan ibili garen antzean.

Ikusiz gero egunotako herriaren esperantza, gerri malgua badaukagula erakutsi dugu antza. Nahiz ta oraindik goizalderarte ez den bukatuko dantza, lagunen batzuk emana dute euren lehenengo urratsa, orain besteek hurbildu behar dute plaza erdirantza.

Nahiz ta aurreak esaten digun nola dantzatu atzea, herrian inork ez du gustoko bere ospea galtzea. Gustatzen zaigu herriko mutil polita aukeratzea, baina ondoren dator iragan beharko dugun trantzea: Madril aldeko bere lehengusu motzarekin dantzatzea.

Plazan ikusi nahi dudan arren jende guztia batera, ez naiz ausartzen une honetan "Macarena" dantzatzera. Etsi ezkerro beste kantu bat baietz eskatu gainera, ta nora goaz hasten badira Ricky Martinen antzera, pausu txiki bat aurrera eta gero beste bat atzera!

Holakoetan bidelagunik onena ez dugu presa, baina ororen gaintetik dago herriaren interesa, ezetza edo baietza eman berak eztabaida beza. Guk zer nahi dugun ulertzea da gauza benetan erreza: geuk aukeratu ta geuk jotzea dantzatu nahi dugun pieza!

Iñaki Aurrekoetxea
Arkaitz Estiballes

Mungiaiko San Antontxu Bertso Paper Lehiaketako Aipamena